

OSKOS



EUROPAKO ELIKADURA- **HUBA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA

EUSKADI: EUROPAKO ELIKADURA-HUBA

Euskadi begiratu batean

Euskadik jarduera ekonomiko sendoa du. Izan ere, 2024an BPGa % 5,4 hazi zen. Ekonomia balio erantsi handiko sektoreetan oinarritzen da: BPGaren % 60 gainditzen duen zerbitzuen sektorea du, bai eta funtsezko motorra izaten jarraitzen duen industria ere.

Gainera, Euskadin askotariko lurraldeak uztartzen dira, landa-eremuak eta hirigune modernoak elkarrekin bizi baitira.

Guztizkoaren zuhaitz-azalera % 54,8 da; ondoren, nekazaritza-azalera (% 24,8); eta azkenik hiri- edo azpiegitura-azalera (% 6,7).

Sektoreen arabeko banaketa

	ELIKADURAREN BALIO-KATEA zuzeneko 6.838 enpresa 139.068 lanpostu M€ +12.900 ustiategi +180 arrantza-ontzi
	LOGISTIKA ETA MUGIKORTASUNA zuzeneko 14.194 enpresa 61.132 lanpostu M€ +120
	AUTOMOZIOA zuzeneko 25.000 enpresa 38.700 lanpostu M€ +300
	ENERGIA zuzeneko 15.700 enpresa 25.986 lanpostu M€ +200
	ELEKTRONIKA ETA IKT zuzeneko 6.561 enpresa 24.794 lanpostu M€ +310
	AEROESPAZIALA zuzeneko 3.459 enpresa 17.513 lanpostu M€ 54
	EKOINDUSTRIAK zuzeneko 3.138 enpresa 11.900 lanpostu M€ +300
	BIO-OSASUNA zuzeneko 2.400 enpresa 10.000 lanpostu M€ +110
	MAKINA-ERREMINTA zuzeneko 1.097 enpresa 4.133 lanpostu M€ +120


Euskadiko datu nagusiak:

- Azalera: 7224,8 km² (2024ko Baso-mapa)
- Biztanleria: 2.218.210 biztanle (2025/01/01)
- Biztanleko BPGa: 44.449 (2024)
- Esportazioak/BPGa: % 35,7
- I+G+b inbertsioa: BPGaren % 2,15
- Lan-produktibitatea: 123,6 (EB28:100)



Euskadiko elikagaien balio-katean sakontzen

Elikaduraren Balio Kateak (EBK) lehen sektorea eta kontsumitzaileak hartzen ditu barne, eta Euskadiko balio erantsi gordinaren (BEG) % 9,7 ematen du. Hurrengo infografiak BEG hori katearen atal bakoitzaren arteko banaketa azaltzen du.



Erakunde instrumentalak 10 %

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko erakunde instrumentalak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA

 **elika**
Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien
Seguratasunerako
Euskal Fundazioa

 **hazi**

NEIKER
MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Ezagutzaren eta dinamizazioaren eragileak

Zentro teknologikoak	Ikerketa Kooperatiboko Zentroa(CIC)	Basque Excellence Research Centres(BERC)	Basque Research and Technology Alliance (BRTA)	Unibertsitateak eta prestakuntza-zentroak	Klusterrak
----------------------	-------------------------------------	--	--	---	------------

ZER ABANTAILA ESKAITZEN DIZKIZU EUSKADIK?



Kokapen estrategikoa eta konektibitatea

Euskadi, Europako elikagaien balio-katerako funtsezko nodo logistikoa.

Europako Ardatz Atlantikoaren bihotzean, eta azpiegitura multimodalarekin (portuak, aireportuak eta lurreko sarea), merkatuetara, hornitzaileengana eta banaketa-kanaletara iristeko aukera errazten du.



Segurtasun juridikoa eta autonomia fiskala

Elikakatean inbertsioa bultzatzen duen erregulazio-eta zerga-ingurunea.

Autonomia fiskalak ahalbidetu egiten du berrikuntzarako, inbertsiorako, jasangarritasunerako edo modernizazio industrialerako pizgarriak eta kenkariak aktibatzea, eta erakundearen hurbiltasunak, berriz, inbertsioak, ziurtagiriak eta erregulazio-prozesuak arin kudeatzea.



Erakundearen ikuspegi estrategikoa

Elikadura, lehentasunezko sektorea herrialde-estategian.


Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekosistema erakundearen planekin osatzen da, hala nola Gastronomia eta Elikaduraren 2030erako Plan Estrategikoarekin (GEPE).



Industria-sendotasuna

Elikagai-industriarekin konektatzen duen enpresa-sarea.

BPGari % 24ko ekarpena egiten dion euskal industria-sarea oso dibertsifikatua eta lehiakorra da.



Zientzia- eta berrikuntza-ekosistema

Gaitasun zientifiko eta teknologikoak elikagaien berrikuntzaren zerbitzura.

Euskadik I+G+b ekosistema paregabea du: 9 parke teknologiko, 4 Cooperative Research Center (CIC), 6 berrikuntza-zentro, 4 Bussiness Innovation Center (BIC), 9 Basque Excellence Research Centres (BERC) eta BRTA aliantza (Basque Research Technology Alliance), Neiker, AZTI, Leartiker eta antzeko zentroak hartzen dituenak. Azken hauek elikadura eta nekazaritzako I+G+b espezializatuak daude.



Kultura gastronomikoa eta tokiko merkatua

Euskadi, mundu mailan, erreferentzia da gastronomia arloan.

Biztanleko Michelin izar kontzentrazioarik handiena du (36 izar 26 jatetxetan), bai eta "The World's 50 Best Restaurants" zerrendan bi establezimendu ere. Lotura handia dago jatorri eta kalitate ziurtagiri aitortuek bermatzen duten tokiko ekoizpenekin, eta horrek indartu egiten du Euskadiko produktuek merkatuan duten ospea eta balorazioa.



Talentua eta gaitasunak

Elikadura sistema eraldatzeko talentu espezializatua.

Euskal hezkuntza-sistemak bikaintasun akademikoa, unibertsitatekoa eta industriarekin lotura handia duen lanbide-heziketakoa konbinatzen ditu, eta profil kualifikatuak sortzen ditu funtsezko eremuetan, hala nola teknologian, prozesu industrialetan, jasangarritasunean edo gastronomian, sektorearen beharrekin lerrokatuta.



Trantsizio energetikoa eta jasangarritasuna

Euskadik konpromiso sendoa du trantsizio energetikoarekin eta jasangarritasunarekin.

2025ean, Euskadin kontsumitutako energiaren % 21,4 iturri berriztagarrietatik zetorren. Gainera, baliabideen erabileraren eraginkortasuna nabarmen hobetu da; izan ere, 2005eko material kopuru berarekin bikoiztu egin da aberastasuna.



Lurraldearen bizi-kalitatea eta erakargarritasuna

Euskadik bizi-kalitatea naturarekin, kulturarekin eta lanarekin bateratzen du, eta bizitzeko leku aparta da.

NOLA LAGUN DIEZAZUKEGU ZURE PROIEKTUA EUSKADIN HAZTEN?



Laguntza integrala

Euskadik zure negozioaren edo proiektuaren garapena fase guztietan bultzatzeko zerbitzu-sorta zabala jartzen du zure esjura:

Prozesu osoan zehar

- Finantzaketa, gaikuntza eta prestakuntzarako laguntza eta sarbidea.

Esplorazio/Ideia gintza proiektuak

- Enpresen ezarpen-, inkubazio- eta hazitegi-guneak identifikatzea.
- Ekosistemako eragileekin bisitak koordinatzea.
- Sektoreko informazioa eskaintzea.

Ezarpen-fasea

- Enpresa-ekimenen laguntza eta berrikuspen teknikoa.
- Beharrak identifikatzeko eta teknologiari, sektoreari eta merkatuari buruzko informazioa eskuratzeko euskarria.
- Jarduerarako kokaleku egokiak aurkitzea.
- Administrazioarekiko harremanetan laguntzea.
- Hornitzaile, bezero eta bazkide potentzialekiko konexioa.

Finkatzea

- Tokiko eta nazioarteko enpresekin eta eragileekin lankidetzak-sareak sustatzea.
- Finantzaketa- eta inbertsio-tresnetarako sarbidea, inbertsio-funtsetarako lotura.

Eskalatzea

- Berrinbertsiorako eta enpresa-hazkunderako prozesuak sustatzea.
- Nazioarteko merkatuetarako sarbidea erraztea.



Finantzaketarako sarbidea

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak urtero hainbat laguntza-deialdi argitaratzen ditu elikagaien balio-kateko eragileentzat. Hurrengo zerrendan kategoria nagusiak agertzen dira, 2026ko edizioko zuzkidurekin. Laguntza horiek beste sail batzuek argitaratutako beste batzuekin osa daitezke.

- **Lehen sektorea: 63,1 MM €**

- Nekazaritza eta abeltzaintza

- Zuzeneko laguntzak: **42 MM€** eta gainerakoa: **10 MM€**

- Arrantza- eta akuikultura-sektorea: **14,5 MM€**

- **Inbertsioa: 36,8 MM€**

- **Berrikuntza: 7,1 MM€**

- **Kalitatea eta sustapena: 9,5 MM€**

- **Sektorearen egituraketa: 1,75 MM€**

- **Landaren eta itsasertzaren garapena: 19,7 MM€**



Gaikuntza eta prestakuntza

Prestakuntza-ekintzen katalogo zabala dago, sareko lanetik sortua. Eskaintza eskariaren araberakoa da, eta haren helburua da egungo profesionalen eta langile berrien prestakuntza-premiei erantzutea, erronka eta estrategia berriei aurre egiteko.

HAZI: <https://fpe.hazi.eus/>

ELIKA: <https://ikas.elika.eus/eu/>

NEIKER: <https://neiker.eus/eu/>



ZURE
ZERBITZURA
GAUDE,
**ESAGUZU ZER
BEHAR DUZUN!**

